

**ERABAKIA, Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioko Patronatuak 2019ko maiatzaren 17an hartu zuena, gaur egungo trebatzaile-laguntzaileen lan poltsa lan poltsa osagarri baten bidez handitzeko hautaprobeen deialdi publikoa egiteko eta deialdia arautuko duten oinarriak onartzeko.**

## OINARRIAK

### 1.- DEIALDIAREN XEDEA.

1.- Deialdi honen xedea da gaur egungo trebatzaile-laguntzaileen lan poltsa handitzea, Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioak (aurrerantzean, FUNDAZIOA) bere sorrerako helburua betetzeko garatzen dituen prestakuntza jardueretarako izan ditzakeen aldi baterako langile beharrei erantzuteko.

2.- Deialdi honen helburuetarako, trebatzaile-laguntzaile izango dira trebatzaile nagusiarri babesten edo laguntzen edo harekin batera diharduten pertsonak FUNDAZIOAK garatzen dituen prestakuntza jardueretan, eta ez dute izango inolako agintzeko ahalmenik jarduera horietan edo autonomiarik prestakuntzako edukiak diseinatzerakoan.

3.- Ondorengo printzipio hauen arabera hautatuko dira poltsa osagarri hau osatuko duten pertsonak:

- a) Deialdiaren eta bere oinarrien publizitatea.
- b) Berdintasuna enplegu lorpenean.
- c) Meritua eta gaitasuna.
- d) Gardentasuna prozesuaren gestioan.

### 2.- LAN POLTSA OSAGARRIA KUDEATZEKO ESKUMENA.

FUNDAZIOAREN Zuzendaritzak kudeatuko du, oso-osorik, lan poltsa osagarri hau.

### 3.- LAN POLTSA OSAGARRIAREN INDARRALDIA.

1.- Deialdi honen ondoriozko lan poltsa osagarria FUNDAZIOAREN Patronatuari bidezkoa iruditzen zaion denbora guztian egongo da indarrean, horretarako kontuan izango dituelarik lortu nahi diren helburuak; eta ordeztua edo osatua izan daiteke etorkizunean egin litezkeen deialdien bidez, deialdi bakoitzeko oinarrien arabera betiere.

2.- Prozesu honetatik aterako den poltsak gaur egun dagoen poltsaren osagarri izaera izango du eta gaur egungo poltsa bukatzen bada bakarrik erabili ahal izango da.

#### **4.- LAN POLTSA OSAGARRIAREN BANAKETA.**

FUNDAZIOAren lan poltza osagarria hainbat zerrendatan egongo da banatuta, ondorengo oinarriak xedatzen duena kontuan hartuz.

#### **5.- LANERAKO EREMU GEOGRAFIKOA AUKERATZEA.**

1.- Lan poltza osagarrira aurkezten diren pertsonen lan egin nahi duten eremu geografikoa aukeratu ahal izango dute, ondorengo hauen artean:

- a) Gipuzkoako eremua.
- b) Bizkaiko eremua.
- c) Arabako eremua.

2.- Eskabidean, lan poltza osagarrira aurkezten diren pertsonen eremu geografiko bat edo batzuk aukeratu beharko dituzte.

3.- Lan poltza osagarria osatzen duten pertsonen beren aukera geografikoa edozein unetan alda dezakete: eska dezakete zerrenda batetik bestera aldatzeko edo zerrenda guztietan agertzeko. Eskaera FUNDAZIOko Zuzendaritzak ebatziko du, horretarako hilabeteko epea izango duelarik gehienez.

#### **6.- LAN POLTSA OSAGARRIA OSATZEN DUTEN PERTSONEN EGOERAK.**

1.- Lan poltza osagarria osatzen duten pertsonak ondorengo egoera hauetakoren batean egongo dira:

- a) **Aktibo.** Deialdi honen babesean FUNDAZIOArentzat prestakuntza zerbitzua ematen ari direnean.
- b) **Prest.** Ez daudenean ez aktibo eta ez behin-behineko nahiz behin betiko bajaran. Gainera, prest egoteko 16. oinarrian aipatzen den prestakuntza gehigarria gainditu behar dute edo oinarri horren 2. atalean jasotzen den moduan prestakuntza horretatik salbuetsiak izan behar dira. Lan poltсан egonik prest egoeran dauden pertsonen bakarrik jaso ahal izango dituzte FUNDAZIOAK deialdi honen babesean eginiko lan eskaintzak.
- c) **Behin-behineko bajaran.** Ondorengo egoera hauetakoren batean baldin badaude: aldi baterako ezintasuna, haurdun, amatasuna, aitatasuna, deialdi honen eremutik kanpo lanean eta deialdiaren xede diren zerbitzuak aldi baterako ematea galarazten dien beste edozein egoeratan. Behin behin-behineko bajaran eragin duen arrazoiak desagertuta, pertsona interesdunak FUNDAZIOAren Zuzendaritzari idatziz jakinarazi egin beharko dio zirkunstantzia hori eta berriro prest egoerara pasatzeko eskatuko dio. Oro har, urtebetez egon daiteke, gehienez ere, behin-behineko bajaran egoeran.
- d) **Behin betiko bajaran.** Lan poltza osatzen duten pertsonen behin betiko bajaran emango zaie, baldin eta:
  - Oro har, behin-behineko bajaran egoeran urtebete baino gehiago badaramate.

- Lan poltsatik behin betiko baja FUNDAZIOAren Zuzendaritzari espresuki eskatzen badiote, idatziz.
- 17. oinarriak aurreikusten den probaldia gainditzen ez badute.
- Diziplina arrazoiengatik kaleratuak izan badira.
- Kontratazioa hiru aldiz eskaini eta beste hainbestetan onartzen ez badute; edo
- zerbitzuak ematea galarazten dieten beste zirkunstantzia batzuk gertatzen badira (heriotza, erretiroa, ezintasuna, askatasunaz gabetzeko zigorra...).

2.- Egoera batetik bestera aldatzea FUNDAZIOAren Zuzendaritzak ebatziko du.

## **7.- ERABATEKO PRESTASUNA.**

FUNDAZIOAren lan poltsa osagarrian dauden pertsonen erabateko prestasuna izan beharko dute; eta bateraezinak izango dira aktibo egotea eta lanaldi osoko beste edozein lan publiko nahiz pribatutan jardutea.

## **8.- POLTSA OSAGARRIAREN PUBLIZITATEA.**

Lan poltsa osagarriari buruzko informazioa eta hura osatzen dutenen zerrendak, sei hilean behin eguneratuta, FUNDAZIOAren (<http://www.sueskola.eus>) web orri ofizialean egongo dira.

## **9.- KONTRATAZIOAREN BALDINTZAK.**

1.- Aldi baterako lanaldi partzialeko lan kontratu bat sinatuko da lan poltsa osagarria osatzen duten pertsonetatik hautatuak izango direnekin eta horiei Langileen Estatutua eta indarrean dauden lan arloko gainerako xedapenak aplikatuko zaizkie.

2.- FUNDAZIOAren lan kontratuaren bidez poltsa osatzen duten pertsonekin ezartzen den loturak ez du, inolaz ere, eskubiderik emango behin betiko edo epemugarik gabeko lanpostu bat izateko.

3.- Bakoitzak bere eremu geografikoa hautatzeko aukera duenez, lan poltsa osagarria osatzen duten pertsonen ez dute inolako konpentsaziorik jasoko joan-etorrien gastuengatik, eta ez dira lanordu moduan kontatuko zentro bakoitzerako lekualdaketengatik.

## **10.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.**

Deialdi honetan parte hartzeko, batetik, eskaera egin beharko da, I. ERANSKINean dagoen eredu ofiziala baliatuz; eta, bestetik, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) 16 urte eginak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditua izatea.
- b) Bete beharreko zereginak betetzearekin bateraezina den gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

- c) Batxiler edo 2. mailako lanbide heziketa edo horien baliokidearen titulu ofiziala edo homologatua edukitzea; edo halako titulua lortzeko ordaindu beharreko eskubideak ordainduak izatea.
- d) Euskararen inguruko gutxieneko ezagutza maila hau edukitzea: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako 2. hizkuntza eskakizunak egiaztatzen duena (apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua) edo Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko B-2 mailaren parekoa, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzekoak, xedatutakoaren arabera.
- e) Gutxieneko prestakuntza jasota edukitzea, 50 ordu gutxienez, suteen aurkako borrokari, suteen prebentzio eta itzaltzeari, arrisku kimikoari eta arnasketa ekipoei buruzko printzipioen inguruan. Prestakuntza hori entitate, organismo edo erakunde ofizial batek emana izan beharko da.
- f) Gutxieneko prestakuntza jasota edukitzea, 20 ordu gutxienez, lehen sorospenen inguruan. Prestakuntza hori entitate, organismo edo erakunde ofizial batek emana izan beharko da.

## 11.- ESKABIDEAK AURKEZTEA.

1.- Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak I. ERANSKINEKO eskabidea behar bezala beteta aurkeztu behar dute: FUNDAZIOko zuzendariari zuzenduta. Eskabidea aurkezteko epea: **2019ko ekainaren 24a, 12:00ak arte.**

2.- Eskabidean adierazi beharko dute 10. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela aurkezteko epea amaitzen den egunean.

3.- Eskabideak aurkeztu beharko dituzte FUNDAZIOAren posta elektronikoaren bidez ([sueskola@sueskola.eus](mailto:sueskola@sueskola.eus)) edo administrazio bulegoetan (Upabi Aldea 2 20240 ORDIZIA).

4.- Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- 10. oinarriaren c) letran aipatzen den prestakuntza akademiko ofizialari dagokion tituluaren edo ziurtagiriaren fotokopia.
- 10. oinarriaren e) eta f) letran eskatzen den gutxieneko prestakuntzari dagokion tituluaren edo ziurtagiriaren fotokopia.
- 10. oinarriaren d) letran aipatzen den euskarari buruzko ezagutzari dagokion tituluaren edo ziurtagiriaren fotokopia.
- 14. oinarriaren 4. atalaren arabera baloratu beharreko prestakuntza jarduerak egiaztatzeko dokumentazioaren fotokopia.

## 12.- BATZORDE EBALUATZAILEA

1.- Batzorde Ebaluatzailea arduratuko da parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeaz eta deialdira aurkeztu diren pertsonak hautaketa prozesuko probetan eta faseetan erakutsi duten kualifikazioa baloratzeaz. Pertsona hauek osatuko dute batzordea:

- FUNDAZIOAren zuzendariak.
- FUNDAZIOAren ikasketaburuak.
- FUNDAZIOAren administrazioaz arduratzen den pertsonak.

2.- Batzorde Ebaluatzaileak, era berean, sor litezken zalantzak argituko ditu eta hartu beharreko erabakiak hartuko, hautaketa prozesua behar bezala garatu dadin oinarri hauetan aurreikusten ez diren kasuetan.

### **13.- DEIALDIRA AURKEZTU DIRENAK ONARTZEA.**

1.- Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, Batzorde Ebaluatzaileak egiaztatuko du deialdira aurkeztu diren pertsonak betetzen dituzten ala ez 10. oinarrian aurreikusitako parte hartzeko baldintzak; eta, horren arabera, deialdian onartutako eta deialditik kanpo utzitako pertsonen behin-behineko zerrendak onartu eta FUNDAZIOAren web orrian (<http://www.sueskola.eus>) argitaratuko ditu.

2.- Deialditik kanpo geratu diren pertsonak 3 egun balioduneko epea izango dute, zerrenda horiek web orrian argitaratu eta biharamunetik hasita, akatsak edo faltak zuzentzeko edo erreklamazioak aurkezteko.

3.- Behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira, erreklamaziorik aurkeztu ez bada. Erreklamazioak aurkeztu badira, beste ebazpen bat emango da haiek onesteko edo ezesteko, eta behin betiko zerrendak onartzeko; zerrenda horiek ere aurrekoen modu berean argitaratuko dira.

### **14.- HAUTAKETA PROZESUA.**

a) Proba edo fase hauek osatuko dute hautaketa prozesua:

1.- Proba fisikoak: nahitaezkoak eta baztertzailerak. Deialdira aurkeztu eta onartuak izan diren pertsonen proba fisiko batzuetara deituko zaie, benetako suteetan egiten diren prestakuntza jarduerak eskatzen duten gaitasuna ebaluatzeko.

Egin beharreko proba fisikoak oinarri hauen II. ERANSKINEAN deskribatzen dira. Proba fisikoak gainditzen dituztenak GAI kalifikatuko dira eta gainditzen ez dituztenak, berriz, EZ-GAI.

2.- Proba idatzia: nahitaezkoa eta baztertzailerak. Deialdira aurkeztu eta proba fisikoak gainditu dituzten pertsonak test moduko ariketa idatzi bat egingo dute, arlo hauetan duten ezagutza ebaluatzeko: suteen aurkako borrokaren inguruko printzipioak, suteen prebentzioa eta itzaltzea, arnasketa ekipoak eta arrisku kimikoa.

Proba honi 30 puntu emango zaizkio, gehienez; eta 15 puntu lortu beharko dira, gutxienez, gainditzeko.

3.- Elkarrizketa: nahitaezkoa eta baztertzailerak. Aurreko proba gainditzen dutenek elkarrizketa bat izango dute Batzorde Ebaluatzailearekin. Elkarrizketan gaitasun hauek baloratuko dira: prestakuntzarako, euskarazko nahiz gaztelaniazko komunikaziorako, arazoibideak aztertzeko, laburtzeko eta antolatzeko, ezagutza transmititzeko, ekimenerako eta talde lanerako gaitasunak.

Proba honi 30 puntu emango zaizkio, gehienez; eta 15 puntu lortu beharko dira, gutxienez, gainditzeko.

4.- Alegatu eta egiaztatutako merituen balorazioa. Batzorde Ebaluatzaileak III. ERANSKINEAN zehazten diren gaien inguruan emandako eta hartutako prestakuntza jarduerak baloratuko ditu, eranskin horretan bertan ezarritako puntuazio irizpideen arabera.

Eskabidean alegatu eta dokumentu bidez eskabidea aurkezteko epea amaitu baino lehen egiaztatu diren merituen bakarrik baloratuko dira. Merituen balorazioak, orotara, 40 puntu izango ditu gehienez ere.

b) Batzorde Ebaluatzaileak, proba guztiak egin eta merituen baloratu ostean, behin-behineko zerrenda prestatuko du izangai bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera hurrenkeran; zerrenda hori FUNDAZIOAREN web orrian (<http://www.sueskola.eus>) argitaratuko du.

c) Pertsona interesdunek 3 egun balioduneko epea izango dute, behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik hasita, alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik edo alegaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da. Erreklamazioak aurkeztu badira, beste ebazpen bat emango da haiek onesteko edo ezesteko, eta behin betiko zerrenda onartzeko; zerrenda hori ere aurrekoaren modu berean argitaratuko da.

## **15.- ESKATUTAKO BALDINTZAK EGIAZTATZEA ETA POLTSA OSATZEN DUTEN PERTSONAK ARGITARATZEA.**

1.- Behin betiko zerrendako pertsonak 10. oinarrian eskatzen diren baldintzak eta III. ERANSKINEAN jasotako prestakuntza jardura puntuagarriak egiaztatze dokumentazio originala aurkeztu beharko dute, egutegiko zazpi eguneko epean, zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Dokumentazio originala epean aurkezten ez duena zerrendatik kanpo geldituko da automatikoki.

2.- Jarraian, Batzorde Ebaluatzaileak poltsa osagarria osatzen dutenen amaierako zerrenda onartuko du, lortutako puntuazioaren arabera hurrenkeran; eta zerrenda hori FUNDAZIOAREN web orrian (<http://www.sueskola.eus>) argitaratuko da.

## **16.- PRESTAKUNTZA GEHIGARRIA.**

1.- Poltsa osatzen duten lehenengo 15 pertsonak prestatzeko trebakuntza bat jasoko dute, eta trebakuntza hori nahitaez gainditu beharko dute poltsa erabilgarriko kide izateko.

2.- Batzorde Ebaluatzaileak trebakuntza horretatik salbuetsi ditzake FUNDAZIOAREN prestakuntza jarduerak eginda dituzten pertsonak.

## **17.- PROBALDIA.**

Poltsa osagarrian kontratatutako pertsonak probaldi bat izango dute, gehienez ere hilabete batekoa, kontratatzen diren egunetik hasita; probaldia gainditzen ez dutenei behin betiko baja emango zaie.

## 18.- DEIEN FUNTZIONAMENDUA.

1.- Poltsa osagarria osatzen duten pertsonen amaierako zerrenda argitaratuta, FUNDAZIOAren Zuzendaritzak, trebatzaile-laguntzaile bat aldi baterako kontratatzeko beharra duenean, dagokion aukera geografikoko zerrendatik puntuazio handiena duena hautatuko du.

2.- Lan eskaintzak jakinaraziko dira telefonoz, posta elektronikoz edo pertsona interesdunarekin segituan eta bizkor komunikatzea ahalbidetzen duen beste edozein bitarteko baliatuz. Horretarako, poltsa osatzen duten pertsonak eman beharko dituzte, gutxienez, harremanetarako telefono bat edo bi eta posta elektronikoko helbide bat, haien ardura izango delarik harremanetarako datu horiek une oro eguneratuta edukitzea.

Eskaintza jakinarazteko, kontuan izango da eman beharreko prestakuntza zerbitzuak ohikoak diren edo presakoak diren.

3.- **Ohiko zerbitzuak** badira eman beharrekoak, Zuzendaritzak bi komunikazio edo abisu saiakera egingo ditu, gehienez, 24 orduko epean. Lan poltsako kide den pertsonak eskaintzari baiezkoa ala ezezkoa emateko 12 orduko gehieneko epea izango du, eginiko azken komunikaziotik hasita. Ezin izan bada poltsako kidearekin harremanetan jarri edo eskaintzari ezezkoa eman badio, zerrendan puntuazioaren arabera hurrena dagoenari egingo zaio eskaintza; eta horrela hurrenez hurren.

4.- **Urgenteak** badira eman beharreko **zerbitzuak**, komunikazio saiakera bakarra egingo da. Eskaintza telefonoz komunikatu bada, unean bertan baiezkoa ala ezezkoa eman beharko zaio; posta elektronikoz komunikatu bada, ordubeteko gehieneko epean eman beharko zaio baiezkoa ala ezezkoa; eta ezin izan bada interesdunarekin harremanetan jarri edo eskaintzari ezezkoa eman badio, berriz, zerrendan puntuazioaren arabera hurrena dagoenari egingo zaio eskaintza; eta horrela hurrenez hurren.

5.- Komunikazioak beti egingo zaizkio poltsan (dagokion aukera geografikoko zerrendan) aurrena agertzen den eta prest egoeran dagoen pertsonari, baita duela gutxi zerbitzuak eman badiu ere; eta sailkapen hurrenkerak bakarrik balioko du komunikazioak sailkapeneko hurrengoegi egiteko, ezin izan bada aurrenekoarekin harremanetan jarri edo eskaintzari ezezkoa esan baldin badio.

6.- Zerrendako kide izateak ez du ziurtatzen eskaintzak komunikatzea.

## 19.- DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (aurrerantzean DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak agindutakoa betetze aldera, deialdira aurkeztu diren pertsonak emandako datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa ematen da jarraian:

I.- **Tratamenduaren arduraduna:** Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa. IFZ: G75005306.

- Helbidea: Upabi Aldea 2 20240 ORDIZIA
- Telefonoa: 943 08 80 50
- Posta elektronikoa: sueskola@sueskola.eus

II.- **Helburua:** hautaketa prozesu hau eta prozesutik irteten den lan poltsa kudeatzea.

- Hautaketa prozesua garatzen doan heinean FUNDAZIOAREN web orrian (<http://www.sueskola.eus>) jartzen diren iragarkiak (onartutako eta baztertutakoen behin-behineko eta behin betiko zerrendak, emaitzenak, etab.) kendu egingo dira hautaketa prozesua burutu eta erreklamazio epea igaro ondoren.
- Hautaketa prozesua gainditzen ez dutenen datuak ofizioz ezabatuko dira, erreklamatzeko epea igaro ondoren.
- Hautaketa prozesua gainditu eta lan poltsa osatzen duten hautagaien datuak tratamenduaren helbururako beharrezkoak eta erabilgarriak diren heinean gordeko dira; hau da, hautagaiak egoera hauetakoren batean dauden bitartean (ikus 6. oinarria): lanerako prest, aktibo edo behin-behineko bajaran. Unean-unean lan poltsa osatzen duten pertsonen zerrenda hori FUNDAZIOAREN web orri ofizialean (<http://www.sueskola.eus>) egongo da.
- Lan poltsan behin betiko baja egoeran daudenen datuak ofizioz ezabatuko dira, egoera hori deklaratu eta erreklamatzeko epea igaro ondoren.

III.- **Legitimazioa:** legezko eginbeharra betetzeko. Sektore Publikoko fundazioa den aldetik, langileak hautatzerakoan berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta deialdiaren publikotasun-printzipioei jarraikiz jardun behar du FUNDAZIOAK (Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 64.2 artikulua).

Eskaera orrian jarri beharreko datuak ematea beharrezkoa da hautaketa prozesua bera eta ondoriozko lan poltsa kudeatzeko. Eman ezean, ezingo da hautaketa prozesuan parte hartu; eta jada lan poltsan egonda, datu horiek ezabatzea eskatzen bada, berriz, lan poltsatik kanpo geratuko da hautagaia.

IV.- **Hartzaileak:** legeak agindu ezean, ez zaie datu hauek lagako hirugarrenei.

Edonola ere, hautaketa prozesu hau publizitate eta gardentasunaren printzipioek zuzentzen dute. Horrenbestez, prozesua garatzen doan heinean, FUNDAZIOAREN web orri ofizialean (<http://www.sueskola.eus>) argitaratuko dira honako hauek:

- Onartutako eta baztertutakoen zerrendak: behin-behinekoa eta behin betikoa.
- Proba edo fase bakoitzeko emaitzak: behin-behinekoak eta behin betikoak.
- Lan poltsa osatzen duten pertsonen zerrenda: unean-unekoa.

V.- **Eskubideak:**

Tratamendu hau dela eta, hautagaiak eskubide hauek izango dituzte FUNDAZIOAREN aurrean:

- Beren datuak **eskuratzeko edo atzitzeko**.
- Oker dauden datuak **zuzentzeko**.
- Datuak **ezabatzeko**: batez ere, jadanik ez badira beharrezkoak tratamenduaren helburua erdiesteko.
- Datuen tratamendua **mugatzeko**.
- Datuen tratamenduari **kontra egiteko**.
- Datuen **eramangarritasuna baliatzeko**.



Eskubide horiek baliatzeko, FUNDAZIOArekin harremanetan jarri beharko dira, ondorengo helbidera idatziz: Upabi Aldea 2 20240 ORDIZIA. Edo e-mail honen bitartez: sueskola@sueskola.eus.

2.- Deialdi honetara aurkezten diren pertsonak bere egiten dituzte eta onartu egiten dituzte oinari honetako 1. zenbakian aipatzen diren datuen tratamendua eta argitalpena. Bere egin eta onartu ezean, poltsako kide izateko bere eskaera baztertuko da edo, jada lan poltsan badago, lan poltsatik kanpo geratuko da automatikoki.

## **20.- GARAPENA.**

FUNDAZIOAren Zuzendaritzari ahalmena ematen zaio deialdi honen ondorioz prestatzen den lan poltsa osagarria behar bezala gestionatzeko garatu beharrekoak gara ditzan.

Ordizia, 2019ko maiatzaren 17a.  
IÑIGO ALDASORO MÚGICA zuzendaria.



## I. ERANSKINA

## PARTE HARTZEKO ESKABIDEAREN EREDU OFIZIALA

**LAN POLTSA OSAGARRIA, TREBATZAILE-LAGUNTZAILEAK ALDI  
 BATERAKO KONTRATATZEKO**

<b>ABIZENAK ETA IZENA</b>		<b>NAN (letra eta guzti)</b>	
		<b>JAIOTEGUNA</b>	
<b>HELBIDEA</b>	<b>POSTA KODEA</b>	<b>BIZI ZAREN UDALERRIA</b>	
	<b>PROBINTZIA</b>		
<b>TEL. MUGIKORRA</b>	<b>TEL. FINKOA</b>	<b>E-MAIL</b>	
<b>PRESTAKUNTZA (eskatzailearen titulu akademiko ofiziala(k). Titulua(k):</b>			

**GAI HAUEN INGURUAN JASOTAKO PRESTAKUNTZA:** suteen aurkako borrokaren inguruko printzipioak; suteen prebentzioa eta itzaltzea; arrisku kimikoa eta arnasketa ekipoak.

<b>IKASTAROA</b>	<b>URTEA</b>	<b>ORDUAK</b>

<b>GAI HONEN INGURUAN JASOTAKO PRESTAKUNTZA: lehen sorospenak.</b>		
<b>IKASTAROA</b>	<b>URTEA</b>	<b>ORDUAK</b>

<b>GAI HONEN INGURUAN JASOTAKO PRESTAKUNTZA: lan arriskuen prebentzioa.</b>		
<b>IKASTAROA</b>	<b>URTEA</b>	<b>ORDUAK</b>

<b>GAI HAUEN INGURUAN EMANDAKO PRESTAKUNTZA: suteen aurkako borrokaren inguruko printzipioak; suteen prebentzioa eta itzaltzea; arrisku kimikoa eta arnasketa ekipoak</b>		
<b>IKASTAROA</b>	<b>URTEA</b>	<b>ORDUAK</b>

<b>IBILBIDE PROFESIONALA</b>			
<b>HASIERA</b>	<b>AMAIERA</b>	<b>ENPRESA</b>	<b>LANPOSTUA ETA EGINKIZUNAK</b>

<b>ESKATZAILEAREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA:</b>	
<b>EUSKARAREN B-2 MAILA</b>	
	<b>ESKATZEN ZAIDAN TITULAZIOA EGIAZTATZEN DUT (markatu x batez)</b>

<b>PRESTAKUNTZA OSAGARRIA</b>

<b>BESTE HIZKUNTZA BATZUK (adierazi hizkuntza; duzun maila, kontuan hartuz Europako A1,A2, B1, B2, C1 edo C2 mailak; eta horien egiaztagirik baduzun ala ez).</b>

**AUKERA GEOGRAFIKOA** (Markatu lanerako prest zauden lauki guztiak)

	<b>GIPUZKOA</b>
	<b>BIZKAIA</b>
	<b>ARABA</b>

Jakinazten zaizu Batzorde Ebaluatzaileak egiaztatu dezakeela hautaketa prozesuan zehar aurkeztutako dokumentazioa/informazioa egia den ala ez; eta prozesutik automatikoki kanpo utz ditzakeela egiazkoa ez den informazioa eman duten pertsonak.

Era berean, norbaitek eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez badu edo eskatzen diren baldintzak egiaztatzen ez baditu horretarako ezarritako epean, hautaketak ez du eraginik izango eta indarrrik gabe geratuko dira eginiko jarduera guztiak.

Batzorde Ebaluatzaileak ahalmena izango du sor litezkeen zalantzak argitzeko eta behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez den egoeretan hautaketa prozesua behar bezala gauza dadin.

Behean sinatzen duenak, alde batetik, eskatzen du eskabide honetan aipatzen diren hautaketa probetan parte hartzeko eta, bestetik, adierazten du egiazkoak direla eskabidean adierazitako datuak eta betetzen dituela oinarrietan eskatzen diren baldintzak, hitz ematen duelarik hori guztia argi eta garbi egiaztatuko duela eskatzen zaion unean.

Lekua eta data:

Eskatzailearen sinadura:

**GARRANTZITSUA! Atzealdean jarraitzen du**

### DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Hautagaiek eskabide-orriaren bidez jakinarazten dizkiguten datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa:

<b>Datu pertsonalen babesari buruzko oinarriko informazioa</b>	
<b>Arduraduna</b>	Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa
<b>Helburua</b>	Hautaketa prozesu hau eta prozesutik irteten den lan poltsa kudeatzea
<b>Legitimazioa</b>	Legezko eginbeharra betetzea (9/2016 Legea, 64.2 artikulua)
<b>Hartzaileak</b>	Web orrialdeko argitalpenak
<b>Eskubideak</b>	Datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko; eta beste batzuk, informazio osagarrian azaltzen denez
<b>Informazio osagarria</b>	Hautaketa prozesua arautzeko 19. oinarrian

Dokumentu hau sinatzeak esan nahi du sinatzailea jakinaren gainean geratu dela eta baimena ematen duela berriaz bere datuak aipatutako helburu horrekin tratatzeko.

Lekua eta data:

Eskatzailearen sinadura:

## II. ERANSKINA

### PROBA FISIKOAK

Hauet dira deialdian izena eman duten pertsonen egin beharko dituzten proba fisikoak:

- 1) Lasterketa jarraitua: 3.000 metroko distantzia korrika egitea, 14 minutu eta 30 segundotan gehienez ere.
- 2) Indarra: 60 kg-ko Dummy bat 20 metro mugitzea, 25 segundotan gehienez ere.

### III. ERANSKINA

#### MEREZIMENDUEN BALORAZIOA

a) Gai hauen inguruan emandako prestakuntza jarduera praktikoak: suteen aurkako borrokaren inguruko printzipioak; suteen prebentzioa eta itzaltzea; arrisku kimikoa eta arnasketa ekipoak: 20 puntu gehienez.

- Emandako prestakuntza ordu bakoitzeko 0,10 puntu emango dira.

b) Gai hauen inguruan entitate, organismo edo erakunde ofizial batean jasotako prestakuntza jarduera teoriko-praktikoak: suteen aurkako borrokaren inguruko printzipioak; suteen prebentzioa eta itzaltzea; arrisku kimikoa eta arnasketa ekipoak, azken lau urteetan, eskabideak aurkezteko epea hasten den egunera arte: 15 puntu gehienez.

-Jasotako prestakuntza ordu bakoitzeko 0,10 puntu emango dira. 51. orduetik hasita aurrera baloratuko da.

c) Lan arriskuen prebentzioari buruz entitate, organismo edo erakunde ofizial batetan jasotako prestakuntza: 5 puntu gehienez.

- Jasotako prestakuntza ordu bakoitzeko 0,10 puntu emango dira.

Inoiz ere ez dira meritu bezala baloratuko 10. oinarriko e) eta f) letren arabera deialdi honetan parte hartzeko gutxienerako baldintza bezala kontsideratzen diren jasotako formazio orduak.